

TXINPANTZE  
MAITEMINDUA

Xabier Amuriza

## AURKIBIDEA

Zirriborro bat .....	3
I. ekitaldia .....	5
II. ekitaldia .....	14
III ekitaldia .....	23
IV. ekitaldia .....	31

## PERTSONAIAK

Sinbus ..... Mutil sasoikoa, proiektuko filmatzailea.  
Gardina ..... Emakume heldua, proiektuko zientzilari nagusia.  
Zirinder ..... Gizon heldua, proiektuaren arduradun nagusia.  
Kovidis ..... Organo Globaleko inspektorea.  
Parabel ..... Organo Globaleko almirante nagusia.  
Lindan ..... Emakume gaztea, Organo Globaleko aditua.  
Globit ..... Mutil gaztea, Organo Globaleko filmatzailea.

## ZIRRIBORRO BAT

- 1) *Hiru aktore nahikoa izateko moduan eratu. Aktore bakoitzak pertsonaia ezberdinak egiteko moduan.*
- 2) *Txinpantzeekiko pasarteak pantailan ikusteko moduan prestatu eta txertatu beharko dira. Era posibleak: a) Marrazki bizidunak, ahotsak ere grabaturik. b) Marrazki hutsak, aktorearen ahotsari jarraituz. c) Estra-talde mozorrotu batek aurretik grabatua. e) Beste era bat? Pentsatzeko. Benetako txinpantzeen eszenak ere garrantzitsuak izan daitezke, unen arabera.*
- 3) *Indikazioak ez dira asko zirriborroan. Bertsio definitiboan xehetasun gehiago eta zehatzagoak behar dira.*
- 4) *Testua lau ekitalditan banatua da. Beharbada, ekitaldiak eta ekitaldi barruko eszena batzuk laburtu beharko dira, denboraren arabera.*
- 5) *Protagonista txinpantzeekin bakarrik dela garatzen diren eszenetan, bai testuak, bai euskarri bisualak konprimitu daitezke, ematen zaizkien soluzioen arabera. Seguruenik, konprimitu «beharko» dira.*

# I. EKITALDIA

## 1) SINBUS, GARDINA

- SINBUS: (*Gardina, bulegoan. Sinbus sartu eta galdetu*). Gardina!  
Txinpantze batekin maitemindu al daiteke?
- GARDINA: Txinpantzea izan behar al du derrigor?
- SINBUS: Hiru lagun gauden erreserba batean, zer beste aukera dago, zu eta hirugarrena senar-emazteak izanik?
- GARDINA: Sinbus! Nire erantzuna balitz baietza, zein litzateke emaitza?
- SINBUS: Lasaitasun integral bat.
- GARDINA: Txinpantze batekin?
- SINBUS: Galdera neuk egin dut.
- GARDINA: Ba, zientzilari moduan, prest nago datua jasotzeko.
- SINBUS: Datua?
- GARDINA: Datu interesgarria. Fenomeno inedito batek beti merezi du obserbazio bat.
- SINBUS: Printzipioz, beraz, ez duzu ideia arbuiatzen.
- GARDINA: Zientzilariok ezin dugu ezer arbuiatu printzipioz.
- SINBUS: Hau poza! (*Badoo*).
- GARDINA: Sinbus! Zure txinpantze hori ... emea al da?
- SINBUS: Hortxe dago koska!
- GARDINA: Koska?
- SINBUS: Arrak oraindik ez dira konturatu.

## 2) GARDINA, ZIRINDER

- ZIRINDER: (*Biraoka*) Puta diola, sanpuskin!
- GARDINA: Gizon! Organoak okatzera al zatoz?
- ZIRINDER: Neureak eta guztienak! Zertan ari gara hemen? Txinpantzeak ikertzen ala perbertitzen?
- GARDINA: Ez dut dilema ulertu.
- ZIRINDER: Sinbus hori begiko duzu, ezta?
- GARDINA: Lankide trebetzat jo duzu beti.
- ZIRINDER: Bestialismoa barne?
- GARDINA: Besti... zer?
- ZIRINDER: Sinbus hori txinpantzeekin kopulatzen ari da!
- GARDINA: O! Eta zure errezeloa ...
- ZIRINDER: Gardina! Gure nagusiek praktika hori sumatzen badute, hirurok enpalatuko gaituzte.

GARDINA: Zirinder! Izena duzun baino zirinago zara. Gure nagusiak ez dira horren detallistak.

ZIRINDER: Ni bai! Egizu hitz berehala mutilarekin, eta garbitu egoera, gehiago zikindu aurretik.

### 3) GARDINA, SINBUS

SINBUS: (*Kas kas, eta sartzen da, beste gabe, kontuz*). Susmatzen dut zertarako deitu didazun.

GARDINA: Seguru? Eseri! (*Gardina esertzen da*).

SINBUS: Eskerrik asko! Autoritateari goitik begiratzean, zulora erori behar dudala ematen dit.

GARDINA: Eta alderantziz?

SINBUS: (*Esertzen da*). Erorita nagoela.

GARDINA: Zutituko naiz orduan (*zutitzen da*), ze zure kasuan erortzea gertatua dela dirudi.

SINBUS: Alegia?

GARDINA: Lehengoan aipatu zenidan «maitemina» ez al duzu gainetik saltoan pasatu?

SINBUS: Ez dut uste. Saltoan ez dauka xarmarik.

GARDINA: Sinbus! Egia al da txinpantzeekin kopulatzen zarela?

SINBUS: Hara! Honaino ere iritsi al da Inteligentziaren bat?

GARDINA: Egia den ala ez galdetu dut.

SINBUS: Erdizka. Bada txinpantze eme bat, setati jarraitzen didana. Eskaini ere egiten zait. Gizatasuna al litzateke atsegin on eta doako bat ukatzea?

GARDINA: Eta hartzea, suposatzen dut.

SINBUS: Jakina! Nori kalte egiten dio bi atsegin onen baturak?

GARDINA: Sinbus! Nik uste nuen zientzian ere bazela metodoen moralitate bat.

SINBUS: O, Gardina! Ba al dakizu zenbat miliatara gauden hemen moralitatearen meridianotik?

GARDINA: Distantziak ez dauka zerikusirik portaera egokiekin.

SINBUS: Distantzia mentala, Gardina! Toki batean gaude, non bidali gaituztenek ere ez baitakite non gauden.

GARDINA: Baina guk badakigu! Organo Globalaren zerbitzari gaude hemen. Txinpantzeak ikertzeko eta zaintzeko ardura eman zaigu. Ez haien portaera sexualak aldatzeko.

SINBUS: Nik ez dut ezer aldatzen txarrera.

GARDINA: Sinbus! Ba al dakizu zertaz ari garen?

SINBUS: Ez argiegi. Zuk bai?

GARDINA: Argituko dizut! Zortzi milioi urteko adaptazioa dakarren espezie bat ezin duzu aproban ipini, estintzio zoriaren une batean.

SINBUS: (*Keinu arraroa*).

GARDINA: Ez begiratu horrela!

SINBUS: Esaidazu nola.

GARDINA: Esango dizudana da –eta hau agindua da– gu hemen eginkizun zehatz baterako gaudela, erakunde goren baten enkarguz. Zuhurtzia soilez bada ere, ez abiatu jokaerarik, proiektua eta lantalde oso bat honda lezakeenik.

#### 4) ZIRINDER, SINBUS, GARDINA

ZIRINDER: (*Gelan sartuz*). Zergatik ez ditugu bidali azken hiletako txostenak?

GARDINA: Bidalita daude! Zer gertatzen da?

ZIRINDER: Semestre oso batekoak falta direla jakinarazi didate, mehatxu tonuan.

SINBUS: (*Gardinari begira, ironiaz*). Pentsa non gauden! Bidaltzen duguna destinora iristen ez den leku batean.

ZIRINDER: Organo Globala ez da postaritzea bat, eta ni ez naiz postaren arduraduna. Hi zer haiz, Sinbus? Txinpantzeki bat?

SINBUS: Ez, jauna. Organo Globalaren zerbitzari bat naiz.

GARDINA: Zein instantziatetik dator kontu-eskea?

ZIRINDER: Hego-ekialde Eremuko Azpisail Zoologikotik.

SINBUS: O! (*Publikorantz*). Oraindik beste bost maila daude Organo Globaleraino.

GARDINA: Sei hilabete behar al zituzten, txostenak falta zirela konturatzeko?

ZIRINDER: Zu ere galdera ironikoekin?

GARDINA: Edo errealistekin. Jakin behar zenuke Organo Globaleko misio baten buru izateak ez zaituela libratzen besteok bezain urrun egotetik.

ZIRINDER: Ikusten dut biok ere nahiko buru bat eginda zabiltzatela, baina jakizue hala naizela Organo Globalaren ordezkari, nola Gardinaren senar. Hi zer haiz nirea, Sinbus?

SINBUS: Menpeko bat, Zirinder jauna. Zure proiektu zoragarria burutzen saiatuko dena, buru eta gibel.

ZIRINDER: Gibel?

SINBUS: Bai, jauna! Hemen organo guztiak behar dira jardunean.

ZIRINDER: Hala bedi, eta bihoaz txostenak gaur bertan, tramite urgentean.

SINBUS: (*Ironiaz, publikorantz*). Organo Globalaren Azpisail Zoologikora!

## 5) GARDINA, SINBUS

GARDINA: Sinbus! Zientzilari moduan galdetzen dizut. Zergatik uste duzu txinpantze eme hori zuregana «setatzen» dela?

SINBUS: Zientzilari moduan zehaztu behar dizut ez dela bat bakarrik.

GARDINA: O! Orduan zergatik uste duzu...

SINBUS: ... txinpantze eme horiek... Ez errepikatu galdera osoa.

GARDINA: Erantzun orduan!

SINBUS: Ba... gozotasuna, atsegina, fereka, karinoa ... Zeuk ere, Gardina...

GARDINA: Baina, Sinbus! Zure eta nire sentierak albora utzita, ez al dakizu txinpantze arrak –oro har, ar guztiak (*publikorantz seinalatuz*)– oso arriskutsuak direla?

## SINBUS

*Sinbus bakarrik, inguruan dituen txinpantze eme bi ferekatuz*

SINBUS: Zuek ez arduratu. Oihana sakona da, eta bazter ezkutuak, ugari. Gardinak ere onesten ditu gozotasun batzuk, beragandik ikasi bainuen zuek honela laztantzen. Gertatzen dena da nik zerbait eskaini ahal dudala, berak ezingo lukeela uste duena. Joango da metodo batzuk ikasten, orain zuen genomarekin abstraiturik dabil baina. Eta Zirinder, ba... Hura Organo Globalaren ordezkaria da. Nahiz eta berak ere bai izan zuekiko sentiera batzuk... kontserban. (*Hirugarren txinpantze eme bat urrunean, hurbildu ala ez dudana*). Aurrera! Aurrera zu ere! Inguratu beldur gabe! (*Hirugarrena hurbiltzen da, eta laztanak*). Karinoa ez da zatitzen banatzean. (*Txinpantzeen exhibizio antzekoa*). O, ez, ez! Nigmatik ez leihatatu ederrean. Nik txinpantzeak bakarrik nahi ditut. (*Fereka suabeak*). Norbanako zoragarriak zarete! (*Txinpantzeen poz-erakutsia*).

## 7) GARDINA, SINBUS, ZIRINDER

SINBUS: (*Atea kas-kas jo eta sartzen da*). O! Biok zaudete?

GARDINA: Baten bat ez egotea komeni al zen?

SINBUS: Ez, ez!

ZIRINDER: Nik baietz esango nikek. Baten bat hori... (*bere burua seinalatuz*). Baina, Sinbus! (*Bat-batean konturaturik*). Zer gertatu zaik?

SINBUS: Istripu txiki bat izan da.

ZIRINDER: Txikia? Birringailutik pasatua dirudik!



SINBUS: Txinpantzekume bat askatu guran, sastraka harritsu batera erori naiz. Buruz behera! Zoritxarrez, harri batzuk aizto prehistorikoak ziren.

GARDINA: Hori desinfektatu egin behar da. (*Zutitu eta begiratzen*). Hau ez da hain berria, e!

SINBUS: Egian esan, konortea galdu dut aldi batez.

GARDINA: Zatoz hona! Bakarrik behar dugu infekzio selbatiko batek jo gaitzan.

ZIRINDER: Zuek segi sendakuntzan. Nik Organo Globalera bidaltzeko txostena amaituko dut.

## 8) GARDINA, SINBUS

GARDINA: (*Oxigeno-uraz igurtzika hasi eta berehala*). Sinbus! Hauek ez dira aizto-harrien zauriak. Gorputz guztian, gainera. Hauek hozkadak dira! Zer egin duzu?

SINBUS: Egin didate.

GARDINA: Hm?

SINBUS: Txinpantzeek eraso didate.

GARDINA: Zeure txinpantzeek?

SINBUS: Arrek. Txinpantze arren hirukote batek eraso dit.

GARDINA: Eta zeure eme laztanek ez zaituzte defendatu?

SINBUS: Ez. Eta horrek, egia esan, defraudatu nau.

GARDINA: Merezita daukazula baino ezin dut esan.

SINBUS: Eskerrik asko! Bazen garaia zuk niri merezimendu bat aitortzeko.

GARDINA: Sinbus! Ohartzen al zara zer zingira aberrantean sartzen ari zaren?

SINBUS: Hemen denok ari gara aberratzen. Espezie basati baten oheraino sartu gara. Kontsekuenteak izan beharra dago.

GARDINA: Baina, Sinbus! Proiektu bat suntsitzen ari zara.

SINBUS: Ala norabide singular bat ematen? Gardina! Zuk baduzu jabetzeko beste intuizio emaitza iraultzaileak lor ditzakegula, nik susmatzen dudak bidetik.

GARDINA: Zernahi uler dezaket, izan ezik hau bisionarioen kanpaleku bat izatea. Zirinder osoki konturatu baino lehen, eta zure gain dagokidan autoritatetik, hertsatzen zaitut, emeki baina irmoki, uzteko ameskeria horiek literaturarako, eta zentratzeko garatzen ari garen programan. Agindu bat da!

(*Sinbusek, irten eta atea itxitakoan, zinuak kanpotik barrurantz*).

## 9) SINBUS ETA TXINPANTZE EMEAK

*Barruti batean, Sinbus eta emeak. Hauek baloi batekin jolasean. Une batez, Sinbusek baloia hartu eta kanal batetik bota, pixka bat behera eginean. Bola-jokuaren antzera. Baloiori aurrea hartu eta beragana iristean, hankak zabaldu eta baloia hankartetik. Txinpantze batek baloia hartu eta bota. Behin Sinbusen hankartetik, behin zabaldu ez eta Sinbusek istripu plantak. Txinpantzeak pozik. Grazia handiagoa hankak zabaldu gabe harrapatzean. Gero txinpantze bat jarri txakil moduan. Denek ikasi botatzen, hankak zabaltzen eta abar.*

SINBUS: Horrela! Orain, zuk baloia bota. Orain, zuk birla jarri. Horrelaxe. Ez, ez! Baloia ezkutatu, ez! Ekarri bere tokira. Zuk baloia (*bati*) eta zuk birla (*besteari*). (*Eta abar*)

*Arrak barrutiaren kanpotik begira, urduri, antsios, haserre-uluak.*

SINBUS: (*Arrei begira*). Zer? Ikuskizun dibertigarria, ezta? Jo esku-zartak! Ez dakizuela? Jo lur-zartak! (*Txinpantzeen erara lurra joz*). Sarea ez! Lurra, lurra! Zuek segi! (*Emeei*). Ikuslerik ez balego bezala. Galai antsios horiek ikas bezate ez zaretela euren posesio bat. (*Jolasean jarraitu eta une batean*): Nahikoa! Etorri hona! (*Zelaian esertzen da, zoruan*). Nahi baduzue, jakina. (*Txinpantze batek baloiarekin ospa*). Doala! Hemen askatasunak nahitasunarekin ibili behar du. (*Besteak inguratzen zaizkio, haur talde bat bezala*). Dotore gaude, ezta? Pozik ere bai? Zoragarriak zarete! Ez duzue galdera konpromisozkorik egiten. Pudorea zer den ez dakizue. Mina eta atsegina bakarrik ezagutzen dituzue. Atsegina ere bai, e! Nola gustatzen zaizuen azkura egitea! Neuri ere bai, baina edonon ez. Et, et! Kili-kiliak dauzkat. Zuek ez? Ai! Zer ez ote nuke emango zuen larrua edukitzeagatik! Gure azal belaxka honek inboluzio bat dirudi. Zapaburutik hurrengoa. (*Txinpantzeek fereka gehiegi egiten*). Nahikoa, nahikoa! Ondo nago. Ez zaitetzte ahalegindu hobeto egonazten. Ipuin bat kontatuko dizuet. Bazen txinpantze bat, «Pantxi Urdina» esaten ziotena. Izatez, ez zen txinpantze-txinpantzea, baina... (*Txinpantzeek arretarik jartzen ez*). Ez zaizue interesatzen, ezta? (*Sareaz handiko arrei zuzenduz*): Zuei bai? Ez al dakizue itsuskeria dela besteen solasera belarri-prest egotea?

## 10) ZIRINDER, GARDINA

ZIRINDER: Gardina! Sinbus hori nora doa, txinpantze emeak harenean hartuta? Zer proiektu garatzen ari gara?

GARDINA: Egia esan, ez dakit garbi-garbi.

ZIRINDER: Zer ez dakizu «garbi-garbi»? Sinbusena ala proiektuarena?

GARDINA: Gauza askorena.  
ZIRINDER: Zu ere horrela? Mutil hori ez dabil bere burutik bakarrik.  
GARDINA: Ba, hemen hiru buru bakarrik gaude.  
ZIRINDER: Hiru ken bat! Biok ari zarete perbertitzen. Elkar perbertitzen!  
GARDINA: Hainbeste?  
ZIRINDER: Eta gehiago! Egiozu berehala dei eta esaiozu, aberrazio horiek mozten ez baditu, Organo Globalaren aurrean salatuko dudala.  
GARDINA: Jesus, gizon! Lekutara jo duzu! Nondik iritsi behar duzu Organo Globalera, zein latitudetan gauden ere ez baitakigu argi?  
ZIRINDER: Ba, argitu bitartean, itxaroten dut behar den kontudentziaz hitz egingo duzula mutilarekin, eta proiektuan zentzuz jarraitu ahalko dugula, esperimantu zerrietan hondatu gabe. (*Atea kolpean itxi*).

## 11) GARDINA, SINBUS

GARDINA: Sinbus! (*Zutitzen da*). Zertan ari zara orain txinpantze emeekin?  
SINBUS: O! Kamera ezkuturen bat jarri al zait?  
GARDINA: Ez zara askorik ahalegindu, Zirinder batek ikusia izateko.  
SINBUS: Harrigarria! Zirinderrek ikusi nau... eta zuk ez?  
GARDINA: Ez zaitut ikusi nahi izan.  
SINBUS: Hara! Banuen susmoa nire ideiei gustua hartzen hasia zinela.  
GARDINA: Sinbus! Dagokidan autoritate guztiarekin mintzo naiz. Ezin duzu txinpantzeen gizartea erdibitu ... generoen arabera!  
SINBUS: Egunean ordubete bakarrik da barren!  
GARDINA: Ez bete, ez huts! Ezin zara emeekin aparte elkartu.  
SINBUS: Zer nahi duzu? Arrek hil nazaten?  
GARDINA: Arrazoiz! Txinpantzeria desintegratzen ari zara.  
SINBUS: Ezin dut sinetsi benetako mehatxuan ari zarenik.  
GARDINA: Sinbus! Ez al dakizu noren agindupean lan egiten dugun?  
SINBUS: Organo Globalaren?  
GARDINA: Ez ala?  
SINBUS: Uhu! Organo Globalaren kontua bada, begiratuko dut gauerdian izartegira.  
GARDINA: Ez hain urrun, txotxo! Hemen badiagu bat, Organo Globalaren ordezkari zuzena.  
SINBUS: Zure senarra? (*Burlazko tonuan*).  
GARDINA: Senar baino ordezkari bihurtzen ari dena, hire erruz.  
SINBUS: O! Auzia hori bada, saiatuko naiz hariak lurpetik eramaten.

## 12) SINBUS ETA TXINPANTZE ARRAK

*Baloi-bola jokuan jolasak, emeein bezalatsu. Benetako bola zurezkoak ere bai, tamaina eta pisu ezberdinetakoak. Ar gehienek astunak eta handiak nahiago. Borrokak. Haserreak ere bai.*

SINBUS: Et, et! Geldi hor! Haserretzen bazarete, ez dago jolasik, ez platanorik. Oihanera zuzen joango zarete, termitak ehizatzeraz.

*Sinbusek irabiagailu bat martxan erakusten die, zeinaren soinu kirrinkariak, eta areago ukituak, txinpantzeei beldur handia ematen baitie.*

SINBUS: Jolasa ez da besteei jokatzeko ez uztea. Hori gaiztakeria da. Horrela bai! (*Txinpantzeak formal*). Jolasa jokua banatzea da. Lagunak egiteko modua. Zuek zergatik garatu duzue gauzak elkarri kentzeko grina hori? Hainbeste milioi urtetan, izan duzue, ba, astia beste metodo batzuk entseatzeko! Ondo dago. Eternitate batean ezin izan dena ez dugu arratsalde batean egingo. Orain egingo duguna da... Askaldu! (*Hitza esanaz batera, txinpantzeak inguruan batzen, desiros bezala*). Hara! Hitza ezagutzen? Askaldu!! (*Txinpantzeak jauzika*). Ea beste hitz bat ezagutzen duzuen. (*Txinpantzeak zain*). Platanoak! (*Txinpantzeak pozezko ziraldok. Platanoak ikustean, pozezko uluak*). E! E! Banan-banan eta soseguz. (*Eskaini eta ez emanez, lortzen du sosegua*). Amaitu da! Ez dago gehiago. (*Txinpantzeak lasaitzen eta inguruan esertzen*). Ikusten zer ondo konpontzen garen? Zergatik zarete horren ergelak, eme bat tartean dagoenean? (*Txinpantzeen keinuak, ezjakin plantatzat ulertzeko modukoak*).

## 13) ZIRINDER, SINBUS

ZIRINDER: Sinbus! Jarri tente!

SINBUS: Buruz gora?

ZIRINDER: Moztuta gorago ahal bada, hobe!

SINBUS: Hori neuk bakarrik ezin dut egin.

ZIRINDER: Lagunduko zaik, teman jarraitzen baduk. (*Sinbus tentetzen da, ikara plantan*). Zer astakeria darabilk buruan?

SINBUS: Beste kamera ezkuturen bat orain ere?

ZIRINDER: Ez haiz askorik ahalegindu ezkututzen. Sinbus! Proiektu baten bukaeran gaudek. Goitik estutzen ari zaizkiguk. Atzeraturik gabiltzak. Eta hi prozedura guztiak puskatzen? Eta okerrena, txinpantzeria trastornatzen?

SINBUS: Arrak arretara ere oso ondo konpontzen gara. Zer dauka horrek txarrik, noiz eta gure ikerketen helburu nagusia txinpantzeen portaera biolentoen arrazoi zehatza atzematea denean?

ZIRINDER: Ez jaurti niri erretolika-rik! Hemen metodo oso zehatz eta unibertsalki onartu baten arabera ari gaituk.

SINBUS: Non sartzen baita ikerkizuna obserbatzea, ahal diren ertz guztietatik.

ZIRINDER: Baina objektua puskatu gabe! Ezin duk sexuen separazioa ezarri.

SINBUS: Txinpantzeen euren artean ere, zirkunstantzia batzuetan, ar-emeak aparte ibiltzea ohitura bat da.

ZIRINDER: Euren ohitura denean! Ez, hirea denean. Sinbus! Izan kontuan metodoaren barruan doala prozedura hierarkikoa ere. Utzi zerrikeria horiek edo Organo Globalaren aurrera altxako haut.

## II. EKITALDIA

### 14) SINBUS, GARDINA

GARDINA: Zer dugu oraingoan, Sinbus?

SINBUS: Erabaki bat.

GARDINA: Ezkontzea, agian, zeure...

SINBUS: Gehiago!

GARDINA: Hm?

SINBUS: Gardina! Txinpantzea izan nahi dut.

GARDINA: Hara! (*Barretxo eutsiak*).

SINBUS: Zerk egin dizu grazia?

GARDINA: Ba, beharbada (*goitik behera begiraturaz*), ez zaudela hain urrun.

SINBUS: Zertatik ez nago hain urrun?

GARDINA: Txinpantzeek ez daukate isatsik.

SINBUS: Gainerakoa ez dela hain zaila esan nahi al duzu?

GARDINA: Baina, Sinbus! (*Deskontzertuzko keinuak*). Zertarako izan nahi duzu txinpantzea?

SINBUS: Gardina! Gure ikerketa biziaturik dago erro-erroan. Txinpantzeen portaera jasotzen ari gara... gizakiekiko erlazioan. Ez gara ari txinpantzeak aztertzen euren baitan, eurak besteentzat baizik.

GARDINA: Teoria ontologiko bat ematen ari zarela dirudi. «Izatea bere baitan», «izatea besteentzat»...

SINBUS: Ba, bai! Gu «txinpantzea besteentzat» obserbatzen ari gara, ez «txinpantzea bere baitan».

GARDINA: Baina, Sinbus! Nola iker daiteke txinpantze bat «bere baitan»?

SINBUS: Norbera txinpantze bihurtuz!

GARDINA: Buf! Hire burua haize-errota bat duk.

SINBUS: Ba, oraingoan haizeak arrazoi du. Txinpantze hauek ezagutzen gaituzte. Ezagutzen dituzte guregandik atera ditzaketen abantailak. Esango nuke estintzio zorian daudela ere badakitela.

GARDINA: Sinbus, Sinbus! Gu oihan honetan gaude...

SINBUS: Gardina, Gardina! Ez naiz etorri eztabaidatzera, baizik laguntza aditu bat eskatzera mundu guztian aitortua den zientzilari bati.

GARDINA: Zenbat aldiz esan behar dizut badugula hemen Organo Globalaren ordezkari bat?

SINBUS: Hori zeure senarra besterik ez da! (*Badoa, eta Gardina buruari eraginka gelditzen da, zalantza keinuetan*).

## 15) GARDINA, ZIRINDER

GARDINA: Zirinder!

ZIRINDER: Zer, Gardina?

GARDINA: Arazo bat daukagu.

ZIRINDER: Bat bakarrik?

GARDINA: Handia! (*Pausa bat eta Zirinderren harridura keinua*). Sinbusek txinpantze bihurtu nahi du.

ZIRINDER: Nahi du? «Nahi du!!». Eta zuk? Zuk zer diozu?

GARDINA: Horixe da arazoa. (*Pausa bat eta Zirinderren beste harridura keinu bat*). Ideia interesgarria iruditzen zait.

ZIRINDER: O, Gardina! (*Zutitu eta gorputz-bira bat eman ez*). Burua triku bihurtu behar didazue. Txinpantze bihurtzea posible iruditzen zaizu?

GARDINA: Probatzea bai.

ZIRINDER: Probatu, zertarako? Beste indibiduo bat gehiago salbatu behar izateko estintziotik?

GARDINA: Oraintxe jaulki duzu gako-hitza. Estintzioa. Ikerketa bat egiten ari gara, galtzera doan espezie batena. Gure tesia munduan zabaltzen denerako, txinpantzerik ez da inon izango. Ekarpentzako funtzionalik burutu ezin dugunez gero, zergatik ez saiatu argitasun inedito batzuk bilatzen?

ZIRINDER: Eboluzioaren ulerkuntzan abiatu besterik ez gara egin, eta orain alderantziz zatoz? Inboluzioa ere posible al da?

GARDINA: Leku aproposan gaude probatzeko. Porrot egingo bagenu, gutaz beste inork ez lekike.

ZIRINDER: O, o, o! Zientziaz ezin dut jasan erretolika kimerikorik. Egidazu hitz emazte bezala.

GARDINA: Ba, emazte bezala, auzia argiagoa da.

ZIRINDER: Hmmm?

GARDINA: Norentzat ari gara lanean? Zeuk esan zenuen, proiektu hau onartzeko dudak geundenean: «Aukera bat da. Urrundu gaiten hemendik». Eta halaxe etorri ginen munduko bazter honetara.

ZIRINDER: Eta hilero bidaltzen dugu txostena Organo Globalera.

GARDINA: Organo Globalaren zerbitzari batera. Daramagun denbora guztian, noiz jaso dugu kontrol pertsonal bat?

ZIRINDER: Ba, hilero ordaintzen digute, zuzen eta gizen.

GARDINA: Hori ere makina baten lana da. Nik uste dut, gaur suizidatuko bagina, nominek berdin jarraituko luketela etortzen.

ZIRINDER: Hemendik txostenik bidali gabe?

GARDINA: Ba, bai. Makina diferenteak dira.

ZIRINDER: Gardina! Ez nazazu behartu dibortzioan pentsatzera!

GARDINA: Horixe da, hain zuzen, egin behar duguna.

ZIRNDER: Eee?

GARDINA: Pentsaaaatu!

## 16) SINBUS, GARDINA

SINBUS: Zertan da kontua?

GARDINA: Zailena eginda dago. Zirinderri planteatu diot eta...

SINBUS: Baietz?

GARDINA: Ez guztiz, baina toleratuko du. Gizonak apatxak bezalakoak dira. Beratzen eduki behar dira, gero ondo mozteko.

SINBUS: Eskerrik asko! (*Ironia tonuan*).

GARDINA: Ez eskertu gehiegi. Txinpantzeetan ez da horrela.

SINBUS: Zailena eginda badago, zein da errazena?

GARDINA: Ilajea. Hortik hasiko gara. Hormona potente bat sintetizatuko dugu, txinpantzeen sekrezio espezifikoko batzuetatik, eta aldi labur batera, ispilua gorrotatzeko bezain iletsu geldituko zara.

SINBUS: Sekrezio konpatibleak izango dira, ezta?

GARDINA: Bai, bai! Txinpantzea ez bada, dispantzea izango zara.

SINBUS: Baina sekrezioak...

GARDINA: Zeure sekrezioen analogoak izango dira, estradiol eta horrelakoak.

SINBUS: «Estra ... diol»? Maldizio bat dirudi!

GARDINA: Ez zara hilko! Tratamendua oso graduala izango da. Hiltzea balitz, ez diozu igarriko.

SINBUS: Eskerrak!

*Txinpantzeen irudi batzuk.*

## 16) SINBUS, GARDINA

SINBUS: (*Gardina bulegoan, eta kanpotik entzuten da*): Gardina! Arrazoi zenuen. Ispilua gorrotatzeko moduan nago.

GARDINA: Aurrera pasatzeko moduan ere bai?

SINBUS: (*Sartzen da, amorruz*): Barregarri utzi nauzu!

GARDINA: (*Barreari eutsi ezinik*): Grazioso, esango nuke.

SINBUS: Esango zenuke? Eta orain zer?

GARDINA: Printzipioz, txinpantzeen aurrera ez agertu. Txikituko zaituzte. Eta Zirinderren aurrera, gutxiago. Dibortzioa eskatzen ari zait.

SINBUS: Txinpantzeek zergatik txikitu behar naute?

GARDINA: Zerripitekoa zarela usteko dutelako. (*Irudia agertzen*).

SINBUS: Horren antza al daukat nik?

GARDINA: Ez guztiz, baina txinpantzeen begietan, nork jakin!



SINBUS: Hau inkompatiblea baino okerragoa da. Zergatik nago honen barregarri?

GARDINA: Erremedioa daukan gauza bategatik.

SINBUS: Hm?

GARDINA: Azala! Azal chapliniano hori beztu egin behar da.

SINBUS: Ikatzez?

GARDINA: Ez, Olentxo! Ilajearen tratamendu berdintsuz. Melanina eta...

SINBUS: Melanina? Izen operistikoa dirudi.

GARDINA: Ba, tratamendua amaitutakoan, lasai interpretatu ahalko duzu «Sibiliako barberua».

SINBUS: (*Opera horretako obertura kantatuz irteten da. La-la-la si (bemola) la...*).

## 17) SINBUS

*Azala beztuta agertzen. Pozik txinpantzeengana, opera kantatuz. Txinpantzeek mesfidantzaz, eraso puntuan hartzen. Baina eraso ez da ikusiko eszenan. Zalantza bakarrik, auzia zein aldetara erabakitzen den airean geldituz.*

## 18) ZIRINDER, GARDINA

ZIRINDER: Zertan ari gara, Gardina? (*Etsipen tonuan*). Honek denon suntsipena izateko itxura hartu du.

GARDINA: Sinbus ikusi duzu?

ZIRINDER: Bera aurkeztu zait.

GARDINA: Mutil noblea da.

ZIRINDER: Noblea? Horixe izango da daukan akats on bakarra. Zer astakeria egitera goaz? Zoazte, hobeto esanda. Zoaz, garbi esanda, argi baitago zeu zarela operazioaren zerebroa.

GARDINA: Esperimentu berritzaile bat izan daiteke. Iraultzailea ere bai, agian, noizbait zientzia errealak bere egin beharrekoa.

ZIRINDER: Gardina! Hemen neu naiz erantzule jarduera guztiena, eta instantzia guztien aurrean. Nola eskatu ahal didazu horrelako ekimen suizida bat? Urka nadin nahi al duzu?

GARDINA: Senartxo maite! Zuk Basa Biziaren Biologoa izan nahi zenuen. Sinbusek txinpantzea izan nahi du.

ZIRINDER: Zertarako nahi dezake txinpantze izan?

GARDINA: Geuk zertarako nahi dugu sarritan geure izatea eraldatu?

ZIRINDER: Sinbusen nahia ezinezkoa da, ordea!

GARDINA: Ilajea eta kolorea badauzka. Zergatik ezin diogu lagundu asmoan aurreratzen?

ZIRINDER: Gardina laztana! (*Amorruzko keinuak hortzen karraskaz, zerbait larria jaulkitzera bezala, baina azkenean, bere burua kontrolatzeko keinua*). Zoaz, zoaz!

## 19) SINBUS, GARDINA

GARDINA: Sinbus! (*Hau negarrez*). Zer duzu? Istripuren bat Land Roverrean?

SINBUS: (*Buruarekin ezetz*).

GARDINA: Ba, negarrez zaude, eta benetan dirudi.

SINBUS: Ez da istripua izan, baina niretzat...

GARDINA: Goazen botikinera.

SINBUS: Ez, ez! Zauri arinak dira, baina larria izan da.

GARDINA: Arinak baina larria? Nola josten da hori?

SINBUS: Txinpantzeek ez naute onartzen. Batzuetan iruditzen zaie zuk aipatu zerripitekoa naizela, eta orduan, eraso sumintsua. (*Eszenak, txinpantzeen erasoena*). Banabil beso- eta zango- ariketak egiten (*ariketen keinuak*), baina ....

GARDINA: Sinbus! Anatomian ez duzu berdinduko txinpantzeen indarririk, ez azkartasunik. Urteen puruz zerbait, agian, baina ordurako, hila zinateke. Zuhaitzetan ez daukazu zereginik. Zure abantaila zorua da. Eta tresnak! Hauek eurei ere asko gustatzen zaizkie, eta zoruan ez dira hain trebeak.

SINBUS: Baina ezustean harrapa nazakete eta...

GARDINA: Jan zaitzakete! Hori argi dago.

SINBUS: Orduan, hemen amaitzen al da saiakera?

GARDINA: Ez. Usaina falta da. Animalietan badakizu esentziala dela. Txinpantzeen usainaz jabetzen bazara, oso litekeena da kide bat gehiagotzat har zaitzaten.

SINBUS: Eta hori nola egiten da?

GARDINA: Sekrezioen tratamendu konplexu samar batekin.

SINBUS: Beste operaren bat orain ere?

GARDINA: Bai. «Feromona» izeneko jainkosa bat aurkitzen badugu, tratamendua atseginago egingo zaizu.

SINBUS: Pertsonaia maskulinorik ez al dago biologietan?

GARDINA: Badira batzuk, «polifemoa», «papagenoa» eta abar.

SINBUS: A! Bai, bai! (*Sinbus badoa, «Papageno» kantatuz*).

## 20) TXINPANTZEEN ESZENA LABUR BATZUK

*Sinbus txinpantzeekin. Testuaren araberrako irudiak.*

SINBUS: Ai zuek, ur-islak baino argiagoak! Azkura egitea gustatzen, e! Bai, bai! (*Bati*). Baina gorputz guztian batera ezin dut. Are gutxiago, denoi batera. Txandak gordetzen ikasi behar duzue. Et, et! Borondatez! Ez bortxaz! Ikasi behar duzue badaudela indarrak beste konponkera batzuk. Begira! Zu. Orain zu. Orain zu. Orain zu. Ona! Utzi hurrengoari. Txanda luzeak eta bizkorrak ezin da izan! Gauza bat egingo dugu. Gaua gainean da, eta oheak egin behar dira. Zuek segi goi-adarretara. Ni behean geldituko naiz. Bai, bai! Leopardoena eta pitoiena badakit. (*Habia egin. Adarrak eta belarrak, bigunago egiteko*). Zu nire ondora al zatoz? Zu ere bai? Belarra gustatzen, e! Ba, ikasi batzen. Nik ezin dut denentzat egin.

## 21) SINBUS, GARDINA, ZIRINDER

SINBUS: Hemen duzue laburpena, oihan-kamerek asteon jasotako filmazioena. (*Mahai gainean utziz*). Ea bereizten duzuen zein naizen.  
*Zirinderrek PDF-a hartzen du.*

GARDINA: Oraingoan ez dakarzu zauririk.

SINBUS: Izan dira saiakerak, baina badut gailu oso disuasibo bat. Ikusten ehogailu moduko hau? Txinpartak, kirrizkadak, karranpak... (*Probatuz*). Elektrizitateari izua diote txinpantzeek.

ZIRINDER: Armamentu horrekin, euren kidetzat haukate?

SINBUS: Baietz dirudi. Haien buruan ez dago alienigenen figurarik.

ZIRINDER: Orduan, rifle batekin ere berdin ibil hinteke.

SINBUS: Ez naiz hain matoia. Laster trepetxu hauxe ere ez da beharko. Txinpantzeek arin ikasten dute nor ez den arriskutsua.

ZIRINDER: Material hauxe ikusi nahi diat. (*Badoa eszenatik*).

## 22) SINBUS, GARDINA

GARDINA: (*Sekretuan bezala*). Zelan doaz zure maiteminak?

SINBUS: Gozamen totala!

GARDINA: Hm! Hainbeste?

SINBUS: Orain guztiek pretenditzen naute.

GARDINA: Guztiek? Hori beste kontzeptu bat da.

SINBUS: Ez da kontzeptura ere heltzen.  
GARDINA: Hm?  
SINBUS: Nahikoa da zelaigune zeihar batean eser nadin, guztiak ingura daitezen, ile-apaindegira bezala. Txinpantzeak xoratu egiten dira, azkura egiten badiezu.  
GARDINA: Hori euren artean ere badakite.  
SINBUS: Baina baldar samar. Eta ez baliatze optimoan, alde sentikorrek bilatuz eta abar. Txinpantze bat tripaz gora jartzen zaizunean, haren aurpegikerak garbi adierazten du atsegina nondik nora dabilen.  
GARDINA: Eta zuk, beharbada... batzuetan...  
SINBUS: Zer esaten ez zara ausartzen?  
GARDINA: Ba, musuak eta...  
SINBUS: Musuak eta dena!  
GARDINA: Estalketa barne?  
SINBUS: Zergatik ez?  
GARDINA: Onartzen dute?  
SINBUS: Baita eskertu ere!  
GARDINA: Arreske ez daudenean ere bai?  
SINBUS: Hor daukat, ba, abantaila! Arrei ez diete uzten.  
GARDINA: Eta zuri bai?  
SINBUS: Noiznahi. Ni eurentzat azkura mota bat naiz. Barne azkura bat.  
GARDINA: Eta arrek zer egiten dute bitartean?  
SINBUS: O! Arrak ere oso azkurazaleak dira. Zaleago esango nuke. Ez dakizu zenbat gustatzen zaien euren zorrotxo intimoak gozo-gozo haztatzea! Txinpantzerian ondo integratzeko, omnisexuala izan behar duzu.  
GARDINA: Handia litzateke hibrido bat sortzea, gizapantzea edo.  
SINBUS: Et, et! Hori ez! Ni araldian ez naiz lehiatzen... ez emeeekin, ez arrekin!

### 23) ZIRINDER, GARDINA, SINBUS

ZIRINDER: (*PDFa mahai gainean utziz*). Material interesgarria dirudi.  
SINBUS: Pozten naiz, beldur bainintzen.  
ZIRINDER: Baina hau ezin diagu bidali Organo Globalera. Berehala atzemango diate txinpantze bat ezberdina dela.  
SINBUS: Bereizi al duzu zein naizen?  
ZIRINDER: Batzuetan, argiegi.  
SINBUS: Ba, filmazio horretan ez naiz behin ere agertzen.  
ZIRINDER: Ez? Benetan?  
SINBUS: (*Buru eta esku keinu ironikoz, ezezkoa*).  
ZIRINDER: Gardina! Esaten nizun nik bista lausotzen ari zitzaidala!

GARDINA: Zirinder! Orain arazoa ez da zure bista.

ZIRINDER: Ondo dago! Segi zuek lanean! Printzipioz, material hau geuretzat bakarrik izango da. Nik ohiko txosten aseptikoak bidaliko ditut Organo Globalera.

## 24) SINBUS TXINPANTZEEKIN

*Irudiak testuaren arabera.*

SINBUS: Zuek badakizue paluak erabiltzen, ezta? Ba, begira palutxo hau. (*Kainabera-palua*). Hemendik putz egin daiteke. (*Putz aurpegietara, behin eta berriz. Txinpantzeak deskontzertaturik*). Tori zuk. Ea! (*Txinpantzeak lortu eta grazia egin. Hautsak eta orbelak astindu. Denek nahi txanda*). Ona! Zortzi milioi urte daramatzazue munduan bueltaka, eta hain gauza xingle bat ez duzue ikasi. Orain goazen uretara. Hartu palutxo bana. (*Kainabera-paluak banatzen*). Begira zer egingo dudan. (*Palua uretan sartu eta burbuilak. Txinpantzeei grazia handia egiten*). Sartu zeuek ere palutxoa uretan. Putz! Honela, honela! (*Sinbusen saiakerak jarraian, eta burbuilaldiak. Txinpantze batek lortzen. Astiro-astiro eta trakeski, azkenean denak*). Itzel! Zortzi milioi urte, beste gauza xingle bat ezin ikasiz. (*Txinpantzeak esperimendu-esparruan. Esparru zabala eta zuhaiztsua, baina Sinbusek ura moztu. Urmael bat bakarrik uzten, burdin-saretua, nondik kainabera-palua bakarrik irits daitekeen uretara*). Begira nik nola jasotzen dudan ura. Putzaren alderantziz. (*Xurgatu eta txinpantzeei jaurti. Txinpantzeak amorratzen egarriz*). Putz ez! Xurgatu! Nola jartzen duzue muturra urruma egiteko? Honela, ezta? Uuuu!, ahoa O forman. (*Txinpantzeek uuu*). Sartu kainabera eta ipini horrelaxe muturra. (*Txinpantzeek egin*). Orain begira! Sartu uretan eta barrurantz. Bularrari edo biberolari tiraka bezala. Uuuuf! Ikasi beharko duzue, egarria ase nahi baduzue. (*Batek noizbait asmatzen, besteek imitatzen, eta azkenean denak, ura amorruez edaten*). Ikusten? Beste zortzi milioi urte, hain gauza xingle bat ezin ikasiz. Orain burdin-sarea jasoko dizuet, eta bakoitzak ahal duena. (*Egarria asetakoan, denak jolasean, burbuilak ateratzen, zurrustak elkarri jaurtitzen. Orgia bat*).

## 25) SINBUS, GARDINA

GARDINA: (*Txinpantzeen ikasketen filmazioa amaitu aurretik, Gardina sartzen eta pantailara begira geratzen*): Eszena bitxiak!  
Pentsaezinak.

SINBUS: Hortxe daude, ba. Natural-natural.

GARDINA: Inork ez digu sinetsiko.

SINBUS: Konprobatzera etortzerik ere ez zaigu komeni.

GARDINA: Progresio hori ezin da ulertu, zu benetako txinpantzea zarela uste dutela.

SINBUS: Nola atzematen da txinpantzeen pertzepzio maila?

GARDINA: Ez dakit. Mekanismo arraroren bat aktibatu dugu hemen.

SINBUS: Ba, segi bezate mekanismo arraroek. Eboluzioa arraroa da. Beharbada, une batera iritsiko gara, non txinpantzeak eurak izango baitira esplikatzeke gauza.

GARDINA: Hm... (*zalantza, errezeloa...*).

SINBUS: Beldur ala?

GARDINA: Bertigo puntu bat. Zortzi milioi urteko emaitza bat egun bakarrean saltatzea... (*Zirinder sartzen da oieski*).

## 26) ZIRINDER, GARDINA, SINBUS

GARDINA: Gizon!! Zaldi bat hankaz gora kuriosoago sartuko zen!

ZIRINDER: Sinbus! Ezkuta hadi oihanaren tripan. Bisita diagu.

GARDINA: Noren bisita, gure lagun hurbilenak zazpi mila kilometrora badaude?

ZIRINDER: Inspekzioa! Organo Globalaren inspekzio-talde bat.

GARDINA: Talde bat?

SINBUS: Zertara?

GARDINA: Zergatik?

ZIRINDER: Galdera gehiago ez al daukazue? (*Tarte isil bat*).

GARDINA: Ba, ez dago harrera antolatzea besterik.

ZIRINDER: Antolatu zer? Bihar datoz!

GARDINA, SINBUS: Bihar!?

ZIRINDER: Hona mezua: “Hiriburuan gaude. Kate Globaleko hotel batean igaroko dugu gaua. Bihar goizean, helikopteroan abiatuko gara Oihan Sakonera”. Sinbus! Ezabatu berehala heure burua!

GARDINA: Non dagoela esan behar diegu?

ZIRINDER: Ez dakit! Susmoa daukat destino zantar baten atarian gaudela.

### III. EKITALDIA

#### 27) KOVIDIS INSPEKTOREA, GARDINA, ZIRINDER

*Oihala zabaltzean, hirurak eszenatoki erdian, inspektorea erdian dela.*

KOVIDIS: Senar-emazteak, ezta?

ZIRINDER: Bai, Kovidis jauna.

KOVIDIS: Zortea da, honelako bazter batean. Sinbus zergatik ez dago hemen?

ZIRINDER: Oihan urrunean dabil, nonbait. Batzuetan, astebeterainoko inkurtsioak egiten ditu.

KOVIDIS: Ezin al zitzaien deitu?

GARDINA: Badakizu hemen koberturak eta...

KOVIDIS: Halako teknologia daukagu!

ZIRINDER: Egia esan, artista paregabea da filmatzen, baina artista gehienak bezala, pixka bat anarkikoa ere bai.

KOVIDIS: Oihan sakon batean uler daiteke laxotasun zerbait, baina Organo Globalaren espirituan, badakizue diziplina emaitza bezain garrantzitsua dela.

ZIRINDER: Bai, Kovidis jauna. Ez daukagu ahaztuta, baina eskertzen da horren amableki gogoratzea.

*Helikopteroa oihana gain-hegatzen ikusten da.*

KOVIDIS: Ongi da! Nire laguntzaileek Oihan Sakona gainbegiratzen duten bitartean, plan orokorra azalduko dizuet. (*Astoan kartel bat irekitzen du. Gardina eta Zirinder, ezker-eskuin*). Hemen ikusten duzue Bilburgo hiri historikoa, non ospatuko baita Basatasun Globalaren mendeurreneko mundu-biltzarra, datorren urteko uztailaren 15ean. Uztaila sinbolikoki hautatua izan da, bertan aurkeztuko baitira biltzarra ikusgarri egingo duten... «uztak». Zuen proiektuak biltzarraren ikurretako bat izan behar du. Maiatzerako entregaturik egon behar du. Ahal izango duzue?

ZIRINDER: Bai, bai! Nola ez, ba?

KOVIDIS: Aurkezlea nor izango den ere hasi pentsatzen.

ZIRINDER: Hori ez dago pentsatu beharrik. Gardina.

GARDINA: Denok joan behar al dugu? Esan nahi dut, Sinbus ere bai?

KOVIDIS: Jakina! Hau talde-lan bat da. Eta mendeurren bat!

ZIRINDER: Ohore neurrigabeaz gainera, atsegin handi bat izango da guretzat.

KOVIDIS: Joango gara ertz guztiak zehazten hurrengo ikustaldietan. Gaurkoa har ezazue kontaktu-hartze informal bat bezala.

ZIRINDER: Bai, Kovidis jauna. Eskerrik asko ilusio berritu bat ekartzearren Oihan Sakonera!

*Kovidis badoa eszenatik. Helikopteroa ere badoa.*

## 28) ZIRINDER, GARDINA

ZIRINDER: Gardina! Zer egiten ari gara?

GARDINA: Zehazki, elkarri begiratzen.

ZIRINDER: Zer ikusteko?

GARDINA: Ikusgarriak, beharbada.

ZIRINDER: “Kontaktu-hartze informal bat!”. Zuk ba al zenekien Basatasun Globala izeneko erakunde bat bazenik?

GARDINA: Nik uste dut geure proiektua aurkezteko asmatu dutela.

ZIRINDER: Duela ehun urte? Mendeurrena esan du.

GARDINA: Nik zer argitzea nahi duzu?

ZIRINDER: Ai, ama gurea, garaiz joan zinena!

## 29) SINBUS TXINPANTZEEKIN

SINBUS: Orain adi! Kainabera-makila hauei (*eta edozein tutu-makilari*) putz eginez gero, begira nolako soinua ateratzen duten. Entzuten? Putz bakarrik. Bai, bai! Xuabe putz eginez, soinu mota bat ateratzen da. Indartsu eginez, beste soinu mota bat. Nota berdinak dira, baina oso kolore ezberdinak.

Soinu ezberdinak nahi dituzue? Hemen baditut beste tutu-makila batzuk. Flautak, izen bat nahi baduzue. Bakoitzak soinu ezberdin bat ateratzen du. Ez naiz hasiko azalpenak ematen, zuei gustatzen zaizuen putz egitea baita. Hartu bana!

*(Txinpantzeak puzka, eta soinu eta nota ezberdinen nahastea. Txinpantzeei zenbat eta nahaste zaratatsuagoa, gehiago gustatu. Denak zoraturik bezala. Behin denak batera, behin banaka. Eta barre).*

## 30) 2. INSPEKZIOA. KOVIDIS, GARDINA, ZIRINDER

KOVIDIS: Hemen gaude berriz ere, agindu bezala.

ZIRINDER: Ondo etorria, Kovidis jauna. Ez dakizu zenbat eskertzen den harreman pertsonal zerbait, honelako oihan sakon batean!



COVIDIS: Nire laguntzaileek oihanean jarraitzen duten bitartean, planaren xehetasun orokor batzuk emango dizkizuet, Sinbus iritsi arte.

ZIRINDER: Sinbus ez da iritsiko, jauna.

COVIDIS: Gaur ere ez? Zer diziplina modu da hau?

ZIRINDER: Sinbus, zoritxarrez, desagertua da, jauna. Lehen bisitan ere horrexegatik ez zen egon, baina orduan hiru egun bakarrik ziren, eta ez genuen pentsatzen halakorik.

COVIDIS: Eta orain diostazue hori, zazpi mila kilometroko bidaia eginda?

ZIRINDER: Bidali nuen partea Basatasun Globaleko Azpisailera, baina ez nuen erantzunik jaso.

COVIDIS: Harrigarria! Bo, ez hainbeste. Aspaldian, makinak tonto jartzen ari dira.

ZIRINDER: Erreskate-talde bat ere eskatu nuen, baina ez dugu erantzunik jaso.

COVIDIS: Honek plan orokorra errotik aldatzen du. Sinbusen ordeztu, laguntzaile bat utziko dut. Naturalista trebea da.

ZIRINDER: Filmatzen trebatua izanez gero ...

COVIDIS: Organo Globalean ez dago funtzionarioirik, filmatzen trebea ez denik.

### 31) GLOBIT, GARDINA, ZIRINDER

GLOBIT: Pozten naiz zuen proiektura gehitzeaz. Honelakoxe zerbait amestu izan dut beti.

ZIRINDER: Ondo etorria, Globit jauna! (*Bostekoa emanaz*).

GARDINA: Ondo etorria, bai. (*Bostekoa emanaz*).

GLOBIT: Amorratzen nago oihanean barnatzeko.

### 32) GARDINA, ZIRINDER

ZIRINDER: Gardina maite! Ez al zaizu iruditzen sekretu handiegi baten gordailu egin garela?

GARDINA: Zirinder gaizo! Sekretua handia da, baina oihana, mugagabea.

ZIRINDER: Nire belaunak dardaran daude.

GARDINA: Zirinder! Oihana mugagabea da, eta inor ez da bizi bertan. Zergatik gertatu behar du txarrena?

ZIRINDER: Ze-ze ... zein da txarrena?

GARDINA: Zuk uste duzu Sinbus deskubritua izango dela.

ZIRINDER: Deskubritua ez da izango, baina ezin dugu bistara ekarri.

GARDINA: Hori ez da txarrena. (*Burlaizean*).

ZIRINDER: Zein da, ba, txarrena?

GARDINA: Larrua kenduko dizutela!

ZIRINDER: Ez al didate kenduko?

### 33) SINBUS ETA TXINPANTZE BIKOTEA

SINBUS: Zuretzat (*emeari*) kanabera multzo hau. Zuretzat (*arrari*) beste multzo hau. Zortzina. Zuek ez dakizue, baina oktaba baten notak daude hor. Do-re-mi-fa-sol-la-si-do. Ez, ez, ez! Teoria ez da zuek ikasi behar duzuen. Hartu nahi duzuen bat eta jo. Beste bat eta jo. Hara! Segi, segi! Baina putz bakarrik! Hozkarik ez! Orain zuk, arrak, bat bakarra beti. Besteak kendu egingo dizkizut, tentazioei aurre hartzeko. Lasai! Itzuliko dizkizut. Jo bakar hori. Orain zuk, eme, jo zortzietako edozein. Horrela! Han! Ikusten? Arraren berdina jotzen duzu. Putz biok! Horra! Soinu berbera. La. A! Banekien, eme, aldatzen hasiko zinela! Bai, ba! Si jotzen baituzu. Batak la, besteak si. Barre? Hori gustatzen? Orain berriz biok zortzinarekin. (*Eta hala, unisonoak eta disonantziak txandatzen, eta txinpantzeak gozatzean jolasarekin*).

### 34) 3. INSPEKZIOA. PARABEL, ZIRINDER, GARDINA

PARABEL: Lehenik, aurkeztu egingo naiz, zein graduaziorekin mintzo zareten jakin dezazuen. Organo Globalaren goren ordezkaria naiz. Aire-armadako Almirante Nagusia. Ez da beharrezko graduari dagokion trataeran saia zaitezten, pentsatzen baitut ez zaretela ohituta egongo hierarkia militarrekin hitz egiten. Nahikoa da «jauna» eta «berori».

ZIRINDER: Eskerrik asko, Parabel jauna! Estimaten dugu berorren onberatasuna.

PARABEL: Hori guztia niotsuen, jabetu zaitezten –eta harrotu ere bai, nahi baduzue–, maila horretako nortasun bat etortzeko, nolako goitasuna ematen zaion Organo Globalean zuen proiektuari, Basatasun Globalaren biltzarrerako.

GARDINA: Ez zaigu joango oharkabea, jauna, erantzukizunak apur bat zanpatzen gaitu baina.

PARABEL: Eta orain, gaira etorriz, Kovidis inspektoreak pasatu dizkigu gure naturalistaren filmazioak, eta irudipen txar bat dugu konkordantzia susmagarriak daudela.

ZIRINDER: Barka, jauna, baina «konkordantziarena» ez dut ulertzen.

PARABEL: Hemengo eta hango zirkunstantzietan. (*Ahoskera misteriosean*).

ZIRINDER: Eman al lezake berorrek konkrezio zerbait gehiago?

PARABEL: Organo Globaleko burua akabatu dute.

ZIRINDER: Ooo!! (*biek, Z. eta G.*). Sentitzen dugu, Parabel jauna. Ez genekien ezer. Hauxe benetan Oihan «Sakona»!

PARABEL: Eta bitartean, zuen txinpantzeak musika kainaberala jotzen! Erromeriarako dei bat izan bailitzan!

ZIRINDER: Noraez totalean nago, jauna.

PARABEL: Zuen Sinbus horrek ez al zekien ezer?

ZIRINDER: Organo Globala zer zen ere ez zekien, neuk esan arte.

PARABEL: Hori ez al zaizue susmagarri iruditzen?

ZIRINDER: Ez dakit, jauna. Ezjakintasuna zeren susmagarri izan daiteke?

PARABEL: Noiz iritsi zen mutila Oihan Sakonera?

ZIRINDER: Buf! Bulegoan daukat fitxa zehatza, ikusi nahi balu.

PARABEL: Ez da behar. Desagertu dela diozue. Hori ere ez al zaizue susmagarri iruditzen?

GARDINA: Barka, Parabel jauna, baina noiz gertatu da Organo Globalaren buruarena?

PARABEL: Joan zen hilaren batean.

GARDINA: Sinbusek urteak daramatza hemen. Zeramatzan.

PARABEL: Oihan Sakonetik hegaldi bat egiteko gogoia daukat. Bihar egingo dugu proiektuari buruzko bilera formala eta zehatzagoa.

### 35) SINBUS, GARDINA, ZIRINDER

ZIRINDER: Sinbus! Zergatik egin duk egin duana?

SINBUS: Egin zer?

GARDINA: Zergatik nahi izan duzu txinpantze bihurtu?

SINBUS: Gardina! Zirinder! Zergatik hitz egiten didazue horren aire beldurgarrian?

ZIRINDER: Militarrak gainean ditiagu. Zerbait larria gertatzen ari duk munduan.

GARDINA: Horiek ez dira hona etorri txinpantzeengatik. Pentsatzen dute zerbaitegatik desagertu zarela. Eta okerrena, pentsatzen dute zerbait ezkututzen ari garela.

SINBUS: Durditurik nago. Zer da munduko larritasun hori?

ZIRINDER: Joan den hilaren batean Organo Globaleko burua akabatu diate.

SINBUS: Ni hemen duela hiru urtetik nabil!

ZIRINDER: Ez duk, orde, lehenengoa izan, baizik... enegarrena!  
«Zerrenda luzea, suizidioak barne» –esan zian almiranteak.

GARDINA: Sinbus! Esaiguzu benetako egia. Zergatik etorri zinen Oihan Sakonera?

SINBUS: Gardina! Zeuen ikasle izan nintzen barren! Zeuek sartu zenidaten harra.

GARDINA: Ba, aurkituko zaituzte!

SINBUS: Horiek ni aurkitu? Ibai bat zeharkatzeko ere, proiektu bat behar baitute!

ZIRINDER: Eta kasualitate aluren bategatik, nola-halako aztarnaren bat harrapatuko baligute Sinbus txinpantze bilakatu zela?

SINBUS: O! Orduan salbu zarete. Inork ez du sinetsiko.

### 36) SINBUS TXINPANTZEEKIN

SINBUS: Nirea hau da. Ea, bikote! Hurbildu hona. Jarri xilofono banatan. Hartu baketak esku banatan. Biak, biak! Batek bakarrik ez du balio. Orain hasi jotzen emea. (*Ekinean-ekinean, azkenean, harmoniko bat: re-sol. Disonantziak, eta berriz re-sol. Eta hala*). Orain harra. (*Berdin. Efektu kontsonanteak, elkarrekin harmonia bat osatuz. Disonantzien jokua ere bai, batak bestearena haustearekin atsegin handia hartuz. Bariazio kontsonanteak eta anarkia berariazkoak. Aldrebeskerian gehiago gozaten*).

### 37) SINBUS, ZIRINDER, GARDINA

SINBUS: Zirinder! Gardina! Zatozte! (*Zirinder eta Gardina sartzen eszenan*).

ZIRINDER: Kontuz dei ozenekin, Sinbus! Habil isilago. Parabel Almirantea inguruan zebilek.

SINBUS: Barka, barka! (*Ia ahopean*). Minutu erdi bakarrik. Begira eszena hauek. (*Xilofonoarenak*).

GARDINA: Harrigarriak! Hauxe ikusteko bakarrik merezi zuen proiektuak!

ZIRINDER: Ezin dut jarraitu ikusten. Akrobazietan gabiltza krater baten gainean.

(*Badoa eszenatik. Atzetik beste biak, harridurazko keinuekin*).

### 38) GARDINA, ZIRINDER

ZIRINDER: Gardina! Ohartzen al zara zer kinkatan gauden?

GARDINA: Eta zer egin dezakegu, jakiteko?

ZIRINDER: Ez gauza bat, bi baizik.

GARDINA: O! Harritzen nau zure sormenak.

ZIRINDER: Esaiozu Sinbusi ez agertzeko gehiago gure ingurura.

GARDINA: Sinbusek, gure laguntza gabe, ezin du oihanean biziraun.

ZIRINDER: Sua egiten badaki eta ikas beza gainerakoa.

GARDINA: Hil egingo da!  
ZIRINDER: Txinpantzeak ere hiltzen dira. Bere erabakia izan da.  
GARDINA: Ondo dago. Zein da bigarren gauza?  
ZIRINDER: Gardina! Proiektu hau utzi egin behar dugu.  
GARDINA: Utzi? Hamar urteko lana bukatzeaz dela?  
ZIRINDER: Ni ez noa Basatasun Globaleko biltzarrera!  
GARDINA: Baina, Zirinder! Nola arrazoitu behar dugu azken orduko desertzio bat?  
ZIRINDER: Aurkituko dugu moduren bat. Besterik ezean, suizidatu egingo naiz.  
GARDINA: Zirinder!!

### 39) PARABEL, GARDINA, ZIRINDER

PARABEL: Amaitzeaz den proiektu berritzaile honetan, planaren aldaketa bat jakinarazteko bildu zaituztet. (*Pausa bat airean*).  
ZIRINDER: Entzuteko irrikaz gaude, Parabel jauna.  
PARABEL: Gardina doktoreari igoera bat esleitu zaio.  
GARDINA: Igoera... nora?  
PARABEL: Monarka tximeletaren migrazioa aztertzeke proiektuaren zuzendari izango zara.  
GARDINA: Baina, Parabel jauna! Hamar urte daramatzat Oihan Sakonean!  
PARABEL: Ulertzen dut, baina badakizu Organo Globalaren aginduak kontraezinak direla.  
ZIRINDER: Senar-emazteak gara, jauna! Ezin al da atzeratu igoera hori gure proiektuaren aurkezpena burutu arte?  
PARABEL: Ez dut uste. Gardina doktorea datorren igandean eramango du gure helikopteroak Oihan Sakoneko hiriburura. Handik Bilburgora hegazkinez, eta astelehenean, Mexikora. Gardina andere! Zirinder jauna! Lau egun dituzue behar den guztia antolatzeke. (*Zutitu eta badoa. Gardina eta Zirinder atzetik*).

### 40) PARABEL, ZIRINDER

(*Txinpantzeak xilofonoetan. Txinpantzeen zoramena. Melodia bat jotzen ere ikasi. Alegia, nota ezberdinak beti era berdinean errepikatu, denbora ezberdinak eginez. Melodia izan litekeen bat. Txinpantze bakoitzak doinu edo preferentzia ezberdinak ere bai. Txinpantze bat, melodian eta harmonian aproba ezberdinak eginez, hautatuz eta garatuz bezala. Ez dirudi anarkia hutsa. Ordena bat bezalakoa dago errepikapenetan. Azkenean, konposizio moduko bat. Minutu bat*).

PARABEL: Txinpantze horiek zertan dabilta?

ZIRINDER: Gozaten ari direla dirudi.

PARABEL: Nork ekarri ditu xilofono horiek oihanera?

ZIRINDER: Sinbus izango zen. Edo berak sortuko zituen, oso asmotsua baitzen esperimentuetan.

PARABEL: Zirinder jauna! Hau aztertu beharrekoa da. Espezialista gorenak biltzeko eskatuko dut, fenomeno teorikoki azter dezaten. Batzorde osoa Oihan Sakoneraino ekartzea garestiegia bailitzateke, buru nagusiarekin itzuliko naiz, konklusioak in situ berrestera. (*Militarra badoa*).

#### 41) ZIRINDER

*Irudiak pantailan oraindik.*

ZIRINDER: (*Desesperaturik*). Material hau nola iritsi da Parabel almirantearen eskura? Gardina! Non zaude? Gardina!! Zer egin dugu? Gardina!!!

*(Eszenatokia iluntzen da. Argiak piztean, Zirinder zoruan agertzen da. Hilda dirudi. Bi lagunek haztatzen dute, eta hilda dago. Esku banatatik heldu eta tarrax erretiratzen dute. Oihalak erdira).*

## IV. EKITALDIA

### 42) PARABEL, LINDAN

*(Biak buzo formako uniformeaz. Bakoitzaren izena jarlekuetan, kartel txiki bana makila tentean dela. Soinekoa Organo Globala hizkiz brodatua, hizki tipo ezberdinetan. Logo bat ere bai. Buruan jantzigarri zerbait).*

LINDAN: *(Ordenagailua zabalduz).* Parabel jauna! Ez dakit zer den txundigarriago: txinpantzeen portaera, Sinbusen desagerpena, Zirinderren azkena, Gardinaren igoera...

PARABEL: Lindan andere! Gardinarena Organo Globalaren erabakia izan da.

LINDAN: Eta beste kontuak? Zer gertatu da hemen?

PARABEL: Horixe ikertzeraz ekarri zaitugu. Zer da jaso duzuna?

LINDAN: Material bitxia, Parabel jauna. Txinpantzeak alai bizi dira hemen.

PARABEL: Ez al da harrigarria? Organo Globalean dabilen txikizioarekin, hemen nola ari dira alderantzizko mirariak kateatzen?

LINDAN: Ez dezagun ezer prejuzkatu. Jar dezagun materiala martxan.

*Marrazkiak:*

*a) Ar batek ume bati eraso, eta ama guztiak arraren aurka.*

PARABEL: Portaera normala dirudi.

LINDAN: Normala da, bai. Gizakiok makaldua dugu defentsa kolektiboaren sena.

*b) Ar batek eme bati eraso, eta eme guztiak arraren aurka.*

PARABEL: Eta hori, Lindan andere?

LINDAN: Ez dirudi hain normala. Gizakion kasuan ez, behintzat.

PARABEL: Lindan andere! Txinpantzeak ikertzen ari gara!

LINDAN: Ez dakit, Parabel jauna. Bidezko dirudi, baina ez daukat gogoan inoiz ikusi dudarik txinpantze emeak horren solidario jokatzeko.

*c) Eme bati edo ar bati eraso, eta eme eta ar, taldean jipoitu erasotzailea.*

LINDAN: Hauze bai badela arraroa!

PARABEL: Xilofonoena errazago irentsiko nuke.

d) Arrak arren aurka araldian, eta eme guztiak batera borrokatzaile guztien aurka. Emeak berak hautatzen zein arrekin parekatu.

PARABEL: Ezinezkoa! Portaera horrek, lehia bat baino gehiago, casting bat dirudi.

LINDAN: Nahi nuke gizakien artean horrela izatea!

e) Edozein erasori talde osoak erantzuten, erasotzailea eskarmentatuz.

PARABEL: Ezinezko bider ezinezko! Zer diozu, Lindan andere? Hori ez al da erabat antinaturala? Portaera horren eboluzioa izan behar al dugu guk?

LINDAN: Gehiegi dirudi, bai.

PARABEL: Gehiegi bakarrik? Organo Globalaren kupularekin kontsultatu behar dut, (*Parabel badoa, marmarrean*) inor gelditzen bada.

(*Lindan geratu, ordenagailura begira*).

### 43) PARABEL, LINDAN

*Parabel sartu. Bakoitza bere jarlekuan, bizkar goian bakoitza bere izen-pankartaz.*

PARABEL: Lindan andere! Agindu biribila iritsi zaigu Organo Globaletik. (*Tarte bat. Espektazioa*). Esterminioa!

LINDAN: Esterminioa? Buruzagi suminaren beroaldi bat izango zen.

PARABEL: Izatekotan ere, buruzagi berriarena. Lindan andere! Aurrekoa joan den astean bidali dute beste planora.

LINDAN: Hilabete bakarrik baitzeraman karguan!

PARABEL: Direnak direlako elementu horiek ez diote begiratzen denborari, karguari baizik.

LINDAN: Baina, Parabel jauna! Esterminioa, zerena?

PARABEL: Txinpantzeena!

LINDAN: Familia hauxe baino ez baita geratzen!

PARABEL: Horrexegatik, hain zuzen. Aginduak dio horrela fronte bat, behintzat, errotik eliminatuko dela.

LINDAN: Zer zerikusi dauka txinpantzeria honek Organo Globaleko halabeharrekin?

PARABEL: Kontuz! Horretan neu ere bat nator aginduarekin. Muturreko fenomenoak, kontrako iruditu arren, elkar-loturik doaz sarritan.

LINDAN: Sarritan? Hau dela uste duzu kasuetako bat?



PARABEL: Zergatik ez? Txinpantze horien portaera eta Organo Globaleko buruei gertatzen ari zaien akabantza hain dira naturaz gaindikoak ezen nahitaez egon behar baitu loturaren bat.

LINDAN: Nola ebatzi behar dugu loturarik, zazpi mila kilometroko distantzian?

PARABEL: Ez da distantzi kontua. Natura zauritu dezakegu. Baita suntsitu ere. Baina hau naturaren inbertsioa da. Organo Globalaren senak ezin du bere gain hartu hain fenomeno irrazionalik.

LINDAN: Baina, Parabel jauna! Basa familia baten esterminioak zenbatean eragin ahalko lioke Organo Globalaren halabehar horri?

PARABEL: (*Etsipen tonuan*). Ez zekinat, Lindan! Egin daitekeena egiteak baliteken eragitea egin ezin denari. Ez ahaztu Sinbusen desagerpenak misterio kezkarri bat izaten jarraitzen duela.

LINDAN: Eta Zirinderren azkenak.

PARABEL: Misterio kezkarria hori ere! Baina handiena, ikusi berri duguna. Txinpantzeek ez daukate zertan hasi gizarte filantropiko bat garatzen.

LINDAN: Nola antolatu behar dugu esterminioa?

PARABEL: Lindan andere! Aginduak dio, operazioaren ondoren, aditu-talde bat bidaliko dutela gertaera ikertzera. Horrek esan nahi du esterminioa burutu behar dela hondamen natural bat izan dela frogatzeko moduan.

LINDAN: Zertarako saiatu horrenbeste zehazten, gero froga zientifiko guztien bermea geure esku geldituko bada?

PARABEL: Ez dut pentsatu, baina arrazoi duzu. Erantzuna lehenbailehen bidali behar da, eta hasi moduak pentsatzen.

LINDAN: Moduak? Bakarra ez al litzateke nahikoa?

#### 46) SINBUS TXINPANTZEEKIN

*Aurreko irudien laburpen bizkor bat: bola-jokoan, kainaberekin zurrutean, puzka, soinuak, xilofonoa...*

SINBUS: Pozik eta dotore gabilta, ezta? Berri interesgarri bat daukat. Esterminatu egingo gaituzte. Ez galdetu zergatik, ze ez zinakete gauza izango erantzuna ulertzeko. Argi dagoena da denbora estutu behar dugula, azken eguna balitz bezala. Ongi? Aire!

*Txinpantzeak eta Sinbus algara jostarian zabaltzen dira. Une batean, Sinbus eszenatokian sartzen da, ezkutuan bezala. Batzorde bereziaren mahai gaineko paper batzuei eraginez, dio:*

SINBUS: Hauek uste dute ni krokodiloek janda nagoela.

*Eta badoa bizkor beste aldetik, okerkeria bat ondo irten zaiona lez.*

#### 47) ESTERMINIOA

*(Zerbait zirraragarria eta, aldi berean, beldurgarria. Ilunetan entzun. Oihuak, garrasiak, harrabotsak. Musika estridenteak. Barre zoroak).*

#### 48) SINBUS ETA TXINPANTZEAK

*Txinpantzeak pantailan ihesi, garrasika. Sinbusek eszenatokia lasterka gurutzatzen. Geratu eta:*

IHES EGIN DUGU! SALBU GARA!!

*Sinbus eszenatokitik kanpora. Atzetik bueltan, bere pauso indartsuak eta azkarrak entzuten. Eta iheseke garasi orokorrak. Berriz eszenatokia lasterka gurutzatzen, oihuz:*

ETA ZUEK?

*Erretiratzen da lasterka, eta oihalak erdirantz, «zuek» oihuaren oihartzuna entzuten den bitartean: «Zuek... zuek?... ». Barreak. Eztanda modukoen traka bat .*

#### ARGIAK ETA OIHALA